

4
Xitzez -

lunitz



DIALEKTOLOGIA Tolosaldea

Lan hau, kaixo esanez aurkeztea nuen pentsatuta, baina elkarriketatu ditudan pertsonen euskalkian kaixo hitza ez denez iflondik- iflora agertzen, egokiagoa iruditu zait beren modura agurtzea, beren modua, eta nire bizitzako garai batetan, nirea esan zena; ni nafarra nizelako, baina nire gurasoak, aiton- amonak,... gipuzkarrak dira, beraz nik ere, etxean behintzat, gipuzkeraz hitz-egiten dut. Gainera mugek ez dute beti hizkuntza mugatzen, gipuzkera Nafarroan ere hitz-egiten baita, nafarrera Gipuzkoan hitz-egiten den bezalaxe, esate baterako Hondarribin.

Hola! Nahiz eta erdaldun hitz bat izan, Euskal Herriko toki askotan erabiltzen dela esan beharra dago, toki bakoitzean entonazio berezia ematen diotelarik, kasu honetan Tolosaldekoa , nire aurrean beren garaiko kontuetaz lasai asko hitzegiten zuten 82 eta 67 urtetako bi ahizpak Albizturren jaioak eta Tolosan urte askoz biziak baitira.

Zaharrenak, Eugeni Haizeburu Galarza du izena eta besteak Juana Josefa Haizeburu Galarza. Elkarriketaren haria ez galtzen ere lagundu ziena, izendatu beharra daukat: honek Helena du izena, lehenengoaren alaba da, eta 37 urteen inguruan dabilela esan dezaket soilik.

Eta oraingoz, besterik gabe, euren kontuekin utziko zaituztet.

H- Ze urtetan jaio zinen ?

E- Baakizu eh?

H- Nik ez, ez dakit noiz jaio zinen.

E- Bai, zea...

H- Mila beatzireun ta...

E- Hamasei.

H- A, hamasei.

H- Da noa juten zineten eskolaa?

E- Albisturra, geo Bidania ebai, ta egun baten zea in zun... kriston hizotza ta dena seko elurra. Ta nik amai esan nion: Ama ni alpargatakin jun behar det, dena seko dago ta eztao batek lokatziketa, lokatzik eta ezer ez tago eta alpargatakin jun behar det, eta alpargatakin jun ginen. Da geo, azaldu zan elurra, kriston elurra, alpargatak ez estropeatzeatik, kendu alpargatak eta anka utsetan eh? maja!

H- Baina zuek elkarrekin ez zineten jun eskolaa ez?

E- klaro, gazteago zien ta , klaro aizu

J- Nik Asunekin ta Manolikin jun nintzan

H- Baina noa, Bidania?

J- Aurrena Bidania ta gero Albisturra. Ez, ni alrebes.

H- Ta goatzen zea izan zendun maestratz?

J- Albisturkoa, bai.

H- Albisturko maestra?

J- Bai, Loreto.

E- Bai, goatzen naiz.

H- Goatzen zea, Albisturko maestratz goatzen zea?

E- Bai, nere adinekoa.

H- Eta nolakoa zan? eta...

E- Oso politta, politta, tipo politta.... oso elegantea...

J- Bai, elejentea*.

E- Ta nei ilea orrazten ai zan, goatzen naiz nola ilea orrazten ai zan...

H- Zui ilea orrazten?

J- Loreto?

E- Bai.

H- Zui ilea orrazten?

E- Baietz!!! Zea ba... jolaseko zean cotean han, yo ya me acuerdo

J- A! Aquella sería de tu edad

E- Bai ba! nere urtetakoa dala.

J- Ta noa, ze eskolatan...

E- Ba ordun kontsejun* tzan eskola

J- Aaaa, kontsejun...aaa...

E- Maestra.

J- Maestra.

H- Ze iten zizun, txikordak?

E- Bai, mototxakin.

H- Aizu, ta zu komunioa, zenbat urtekin ein zendun?

E- Ba iten zan zazpi urtekoa.

J- Zazpi urtekin bat ta geo hamabi urtekin.

E- Geo hamaika hamabi urte.

Elejentea*: interesantea Kontsejun*: udaletxean

H- Ta komunioa iteko, ze eskatzen zizuen?

E- Dotrina dena,

J- Ta oazio denak...

E- Letanik

J- Yo no tengo ni idea, no he aprendido en la vida.

E- Esto... kalbariok hoi denak ikasi nitun, denak, oso ondo. Badaukat, zea daukat, erregalua dauket, una virgen, me dio zeak, hor daukat zeak emanda esto...Don Jesusek emanda. Ahí tengo, eztakit donde está, eztakit nun daon. Aquello no hay que tirar eh? oso politta da. Da hola!

H- zenbat urtekin utzi zendun eskola?

E- Ba zenbat urtekin utziko nun? Pues,hamabi urtekin edo... Geo zean eon nintzen eh? Urnietan eh?

H- Urnietan?

E- Izeba baten etxen. Handik Ermania oinez eh? guapa! bazkaltzea etxea.

J- Enkarguk ittea ta eskola.

E- Enkarguk?...

H- Baino, zergatik jun zinen? Urnieta zergatik jun zinen?

E- Ba osabana ta ume txikik izateak eta... laguntzea pixkat izebai ta... zea laguntzea, izeba ta ondo ezik ibitzen zan ta hola, chica, ta geo handik, eta oinez handik eh? ta bazkaltzea etxea eh? berriz buelta eh?

H- Baino etzinen Urnietan bizi ordun?

E- Baietz.

H- Eta eskola Urnieta juten zinen.

E- Ermania.

H- Ah! Ermania.

E- Monjata maja! Ordun trenak trenak ta izango zian baina...

H- Ta ze ikasten zendun ordun, goatzen zea?

E- Ez, ez naiz akordatzen.

H- Ta ordun zenbat urte zendun?

E- Hamaika urte.

Familia honek bi baserri zituen, eta anai- arreba anitz zirenez, baserrian egiten zuten bizitzeko behar zuten guztia, garai hartako baserri gehienetan bezela. Karea ere, han egiten omen zuten karobiak erabiliz, baita ikatza eta egurra ere saltzeko.



Karobi: kararria kiskalduz kare bizia egiteko erabiltzen den labe berezia.

H- Eta geo handik berriz baserria?

E- Handik baserria.

H- Eta baserrin?

E- Baserrin, hantxe, Baserriko lanak iten zian.

H- Ze iten zan?

E- Pues, batek garik in behar duela, da goldeakin atzetik zu atxurrakin, atxurtu dena eh? golden ai zian denak segi han atzetik atxurtzen, atxurtzen, atxurtzen, berdintzen zea hue, koxka hue, hola, garik eiteko, artok eiteko, maja!

H- Zuek ere karea baserrin ingo zenuten ez?

E- Bai.

H- Eta?

E- Karobi asko in zan han eh?

H- Nun zan karobia?

E- Hantxe, bordan pare-paren oain sasituta dena hantxe dao goiko borda, nola?...

J- Bai, Hantxe.

E- Esaten dizut ba, hantxe karobia nola zan... uain erorita dago ta. Hantxe zeon karobie. Hue juerga karobin...hue juerga...zeakin...nola...Juakin, aitan anaia...

J- A!

E- Hue, Plazentzikoa, ze juerga, hue zan intxantea, ta zea gizon hue bueno, bueno, bueno...

H- Lehengusun bat?

E- Attan anaia, Anaitzakoa.

H- Anaitzakoa?

E- Etxe baten hazi.

Garai hartan gaur egun bezala umezurztegiak ere baziren, kasu honetan familiako pertsona pare bat inklusatik hartutakoak ziren. Normalean bi arrazoiengatik hartzen zituzten haur hauek etxeetan: bata, bikoteak semerik izateko gaitasunik ez izatearen arazoari aurre egiteko, eta bestea morroi moduan lan egiteko.

H- Etxe baten hazi? Anaitzakoa? Ez al tzun ba aitak anai propioik?

E- Ez.

H- Etzun?

E- Aitta zea zan, inklusakoa.

H- Nungoa zan aitta?

E- Zea ba, inklusakoa, baakizu, soltera batena, ordun ebai izango zien.

H- Soltera baten semea?

E- Ta geo aittonak hartu zuen hazitzeko, mutil koxkorra, ta geo ekarri zuen ama zeatik hiloba, hiloba Braulia, Txorrostitik, Brauli hiloba berantzako ahizpan alaba ama hazitzeko, zazpi urtekin edo...

H- Ta geo, ekarri zun beste morroi bat?

E- Bai, ume hoi, eztakit ni zea, ze izango zan...

H- Mutil bat?

E- Bai.

H- Osea, ama hartu zituen bi ume, e neska bat da mutil bat. Mmm... ta geo?

E- Ba bik juntatu zien geo.

H- Biek ezkondu in zien? Zenbat urtekin?

E- Zenbat urtekin? Hamasei urtekin. Hamasei, ta hemezortzi edo hamazazpi edo...Ezkondu in behar det (ja ja ja...)gure aitta.

H- Zure aittek? Ze esan zun zure aittek?

E- Hor ote zan elurra ta mauka utsetan. Kamixa batekin bakarrik eh?

J- Alkandorakin bakarrik.

E- Sin jersey ni nada. Apaizangana jun zan. Ta ezkondu in behar zula esatea ja ja ja ...

H- Ezkondu in behar zula esan zioa?

E- Apaizai. Bueno handik arreatuko zitun baserriko... yo que sé! Aizu, handik ezkonduko zien.

H- Ordun, zuek daukazuen abizen hoi, nundik dator?

E- Yo que sé, zea abizena jarri ziguna izango a. Apaizak jarri omen zion, zeak apaizak. Haizeburu.

H- Ze abizen, ze abizen jarri zion?

E- Haizeburu ta beste zer da? e... ezkonbera.

H- Ezkonbera? ta hoi zer da? ezkonbera, o eskonbrera o...?

E- Ja ja ja ... Ezkonbea izango a

H- A! horre zesan nahi du? Zer da ezkonbera?

E- Ni ze akit.

H- Ze izango a? Jolin!

E- Ba gazte ezkontzen dana edo...

H- Klaro, garaiz ezkontzen dana edo... Hotzberak ze esan nahi du?

E- Hotzbera? ah! hotzakik ikaatu iten zeala ezta?

H- Hotz asko sentitzen duzula ez? hotz haundie?

E- Bai, bai...

H- Ordun ezkonbera? garaiz ezkontzen dana ez?

E- Klaro hoi zan.

H- Hamazazpi urte.

E- Bai, amak hamasei.

H- Amak hamasei? Ordun zuk zer zea, solteratako alaba?

E- Bai.

H- Zu ere solteratako alaba zea?

J- Bai zea...

E- Bai.

J- A bai? nik ez nekin.

H- Zenbat urtekin ezkondu zinen?

E- Hamaseikin.

H- Zu ere hamasei urtekin ezkondu zinen? Ondo ikasi zendun lekzioa eh?

E- Nik bai...

H- Eh? Jolin! Zure gurasoak bezala.

E- Zer pasatu dezu hor abisua?

H- Ez, ni hau jaten ai naiz.

E- Bai, ni ee halai naiz, que nazkante, que nazkante ja ja ja...

H- Ordun, zu ere ezkonbera izan zinen, hombre claro, abizen horrekin...Haizeburu, Ezkonbera.

E- Ja ja ja...

H- Hamasei urtekin ezkondu zinan?

E- Baietz ba.

H- Jolin!

E-¡Jesus chica!

H- Azkar.

E- Berriz berdina esaten, aurki ai zan.

H- Hamasei urtekin ezkondu zinen, eta ama, zenbat urtekin izan zinen?

E- Mmmm?

H- Eta ama zenbat urtekin izan zinen?

E- Ama?

J- Zu jaio...esate u.

H- Zu ama zenbat urtekin izan zinen?

E- Zenbat urtekin?

J- Ama zenbat urtekin.

E- Hamabostekin.

H- Hamabostekin?

E- Oain pentsatzen jartzen naiz, da emate it tristura bat...Una tristura me da...

H- Da zeinekin ezkondu zinen?

E- Al...Martzelinokin! Ez al dakizu zeinekin ezkondu nintzen, hor dao ba!

H- Pues ez naiz goatzen zeinekin ezkondu zinen.

E-Ay...chica qué asco!

E-H- Ja ja ja...

E- Qué nazkante.

H- Ta Martzelino zein zan?

E- Hil tzan.

H- Ia, baino nola ezagutu zendun?

E- Zan hango morroia, hantxe zeona ba... Aspaldin, gure etxen.

J- Claro, ta pasatu zen, pasatu zana, ta ya está.

E- Claro!

H- Zu goatzen al zea?

J- Ni nola goatuko naiz ba.

H- Etzea goatzen?

E- Qué va!

H- Etze goatzen nola ezkondu zan ta nola izan zun familia ta...ez? Zu zenbat urte dauzkazu oain?

J- Sesentayseis, hirurogeitasei.

H- Hirurogeitasei, ta zu dauzkazu...

E- Baakizu, ochentayuni.

H- Zenbat?

E- Larogeita bat.

H- Zenbat?

E- Larogeita bat,ez al dakin!

H- Noiz etorri zinen Tolosa?

E- Tolosa etorri nintzan...Hogei urtekin. Gerra hasi... Ez, Maiatzan etorri da gero gerra Julion hasi.

H- Osea, Uztailan hasi zen gerra?

E- Dieciocho.

H- Hemezortzin? Ta zu zenbat urtekin etorri zinan Tolosa?

J- Ni hamalaukin.

H- Hamalau urtekin? Eta hamalau urte arte baserrin egon zinan?

J- Bai.

H- Eta zer gogoratzen dezu hamalau urte bitartekoa?

J- Goatzen naiz, ba...Gerrako denbora juten nintzen behiak zaintzea ta eiten nun, tomateko poite bat eramaten nun ta eiten nun arroz con leche.

H- Ordun, arroza xaxatu ite zendun?

J- Bai, ta zeon ordun gerra. Bi menditan... batzuk mendi baten, ta bestek besten.

H- Ze menditan?

J- Mendikortan, Txikotan da Mendikotan, da han tirok botatzen zion noizen behin da han eoten nintzen behiak zaintzen.

H- Da etzenun beldurrik pasatzen?

J- Ah ! bai, beti pixka bat. Ta geo artzai ebai; ardi-zai ebai, etortzen zan artzaia garok eta ebakitzea da geo juten nintzen ni ernio aldera ardik zaintzea ta geo han jaten nun gazta pixka bat eta ze o zer ta geo lo hartzen nun zea mendin, harri baten ondon igual

H- Bakarrik?

J- Bakarrik. Da han pasatzen nun eun guztia bakar-bakarrik.

H- Ta zuk bazendun istorio bat, zea, amabirjina ikusi zendula ta...

J- Bai, hori egia da eh?

H- Hoi noizkoa da?

J- Hoi aspaldikoa, egia da eh? Eztakit nik zer zan, baina dena mantel, soineko txuri batekin, ta dena argiz beteta eh? Hola. Dena bera etorri zan da... Baakizu nun?

H- Nun?

J- Emm...este..., nola da hoi?...mm...mendi...zea da sotx... sotx....

E- Solxe?

J- Solxe. Han, bazan han....este mm... sagarra...

E- Sagarra

J- Bai, sagarra bat.

E- Harkaitz bat, bai harri batetan.

J- Haren gainekaldean, ni han nengon behik zain ta han agertu zan, ni zeakit zer zan, baino hola eh? Dena goitik behera, baina egia da eh? Egia da, da gero halaxe jun zan berriz.

E- Izkutatu in zan?

J- Bai izkutatu in zan.

H- Ta zu ordun zenbat urte izango zendun?

J- Nik ordun izango nittun pss...eztakit ba... zortzi urte edo hola izango nittun.

H- Ta hura ikusi zendunean, ze sentitu zendun?

J- Eztakit, pentsatu nun amabirjina izango zala, bai, halaxe ikusi nun eh? nik ez det ikusi behñe holako gauzik, beñe eh? Baina hasi eh? dena goitik behera ssshh... ta geo ssshh...bea etorri ta geo sshh...

H- Akabo!

J- Akabo! Ez nun ikusi gehio geo. Dena txuriz jantzita eh? Dena txuriz goitik behera, soineko luze batekin.

Gero eta aurrerago, gero eta zailagoa zen baserrian bizitzea, hirietako bizimodua indar haundia hartzen baitzegoen. Seme nagusi guztiak hirian zeudenez, hala ezkondu zirelako, nola lanposturen bat aurkitu zutelako, baserriak behera egin zuen, eta Joanak ere hirira joan behar izan zuen bere ahizpekin lan egitera.

H- Ta hamalau urtekin geo noa etorri zinan geo?

J- Hamalau urtekin geo etorri nintzan ni nere ahizpak jarri zun pelukeriaa, ta ordun etorri nintzan laguntzea, launtzea eh?

E- Feliri.

J- Etorri nintzen laguntzea ta geo nere ahizpak zun taberna, beste ahizpakin ta geo etzun pagatzen dirua, ta ni geo hartu ninduen laneako han berriz aittu.

H- Tabernan?

J- Tabernan, geo han eon nintzen , hamalau urte kunplitzeko etorri nintzen ta eon nintzen han hogeitasei urte arte.

H- Hogeitasei urte arte? hamabi urte pasa zenituen tabernan?

J- Hamaika urte, hamaika.

H- Joxepanan? Eta zu urte haiekin zer zinan, Tolosan?

E- Bai, Ibarra.

J- Hau ere Tolosaa etortzen zan geo jaietan, lanbatetan laguntzea...

H- Zuk zer goatzen dezu Tolosan gerra denboratik? Nun bizi zinan Tolosan gerra denboran?

E- Gerra garaian?

J- Riada.... txekorrak udak eamaten...

H- Noiz? Noiz hoi?

J- Hoi, riada izan zen Tolosan eh? ordun ta txekorrak eta dena udak...

E- Eamaten zitula?

J- Bai, bai...

H- Hoi, ze urtetan zan ?

J- Ze urtetan, ze urtetan izango zan ba... eztaikit ez det goatzen.

H- Hoi gerra pasata geo.

E- Tingladun zan, zea... bazan peria, riada dula urte asko.

J- Eztaikit ze urtetan izango zan ba...

E- Ez al tzan treintai....

J- Eztaikit. Ordun zeon han Maria, baakizu Maria txiki. Hue, ze, holako lokatza dena...Barrun ere dena.

E- Bai riada izan tzanen.

J- Bai, taberna dena lokaztuta, dena, dena, dena lokaztuta, lokatza ai ama, ze hotza, ta ze hotza.

H- Ta geo zuek garbitu zenuten dena?

J- Ze hotza, nik eta harek beak Maria ze hotza...

E- Ta gu tratuan genbiltzanean, hoi zenbat urte izango a? Arrantzak eta zeak denak, dena lokatzartean dena geatu zien.

H- Berrogeigarren hamarkadan izango zan hoi, gerra pasa ta geo.

J- Ta Erbiianeko ta kazuelak denak eh? leihotik atera, leihok puskatu denak ta denak irabian.

E- Kalen behera.

H- Denak irarin kalen.

J- Kazuelak eta dena.

E- Ta gu goiko pisan.

J- Claro, beheran dena uda.

E- Hoi baakizu zer zan Juani? Hoi zan asteaisken bat, gu Billafrankan izan, kriston eurika, kriston eurika.

Ta gu Billafrankan, ta Billafrankan badator xestoa ta traste zea ta estazioan eskailetan bea ta eoitzen naiz, eskaieratan.

H- Zu erori?


E- Irristatu ta cori, busti dena, hue huan ebiye, hue zan ebiye, ze ebiye, ze ebiye, desastre, desastre, ba holaxe, hoi zan asteazkena, hue ebiye ama... ene...

Historia puskat in deuzta? Ze kontu politten eh?

Guzti hau ikusita, euskalki honek, ezaugarri berezirik ez duela ondoriozta dezakegu; oso garbia eta ulerkorra delarik. Bertakoez maiz esaten dutenez, Tolosako euskara, Euskal Herrian zehar daudenetariko politenetariko bat da, eta ez nieke inola ere ezetz esango, norberak bere lurraldearekiko duen lotura iñork ezin diolako kendu.

Inguru hau bisitatzean, norbaitengana hurbildu ezker segituan antzemango dituzu hurrengo ezaugarriak:

* Aditzak:



* Gaztelaniazko hitzen erabilera:

- Komunioa
- Maestra
- Kontsejua
- Pues
- Soltera

* "r"-ak jaten ditu

- Nora galderari erantzuterakoan:

Adib. Nora zoaz?

Etxea

Hondartz

- Nori galderari erantzuterakoan

Adib. Nori eman diozu liburua?

Amai

Izenordainetan baita ere:

Adib. zui

nei

- Beste kasu batzuk:

Adib: orain - oain edo uain

hura - hue

* Norengana galderari erantzuterakoan -re(n)- galtzen du.

Adib. Norengana zoaz?

Aitangana

Hurrengo batean beraiekin berriro elkartuko garelakoan, agurtzen zaituztet. Oraingoan bai gipuzkeraz, bai beste euskalkietan erabiltzen den eraz:

Agur!